

Elebitasun legala eta erreala

Zure Foru Aldundia, 1988-08.

Orain hiru urte, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"ek Bizkaian duen Batzordeak antolatu zituen Bilbon: "Bizkaia XXI. mende aurrez, III. Jardunaldiak".

Oso ongi eratuak, ohi dituen bezala.

Neuk, "Elebitasuna eta kulturaren eboluzioa"ri eskainia zegoen atalean hartu nuen parte, eta bertan azaldu nituen argudioak errepika nahi nituzke.

Zer da hizkuntza, eta zer adierazten du nagusiki?

Gauza bat dago argi: mintzaira izan da gizakiaren kulturak duen abiapuntua. Hizkuntza, komunikazioaren bide izatez gain, gizakiaren oinarritzko kultur esperientziak jaso eta gorde dituen fenomeno da; historiaren egiazko lekuko da gainera, nagusiki adierazten baitigu nondik iragan den eta nondik ez. Hau da bereziki gure kasuan euskarak duen balio paregabea: 6.000 urte dituen aintzinako Euskal Herriaren historia bizia.

Euskararen ikuspegi ezberdinak

Hizkuntza bat balioztatzeko ikuspuntu bat baino gehiago bada: Bat, bakoitzak berea denarenaz duen ikuspegia; bi, beste inorena izatez gain, axolarik ez zaiguna izateak ematen diguna; gure kasuan, zirkunstantzia hauez kanpo, "Espainiatik irten gabe, bertoko beste nonbaitetik" Euskal Herrira etorri denarena, eta delako "Año de la Victoria"n Ministerio de Educación Nacional-ek argitaratu zuen Catecismo Patriótico Español famatu haren eraginez pentsatzen jarri dutenarena.

Zeren eta modu guzti hauetara heldu baita Euskal Herrira jendea errurik gabe, hau da egia.

Errudun batzurekin batera!

Horrelako nolabait etorri zaizun bizilagunaz gainera aurki zindezke bere herriko hizkuntza ezagutzen ez eta axolarik ez zaion zure herrikide batekin; hizkuntza galdu duen eta axolarik ez zaion euskaldun ohi batekin; eta aurki zindezke, bestalde, galdua duen, kendu dioten!, eta falta zaion!, eta bere hizkuntza nazionala ikasteko eta erabiltzeko eskubidea exigitzen duenarekin ere, eta hau dela eta, eskolan, soldadutzan edo komisaldegi batetan sufritutakoa izan denaren aurrean, gainera.

Kasu hau ere arrunta baita.

Euskaldunok ba al dugu geure hizkuntza erabiltzeko eskubide legalik?

Gizaki bati hitzegiteko eskubiderik baduen galdetzea bezalatsu da hau.

Ba: euskararen eskubide legal hau lortzeko gizabidezko tratu bat lor aurretik, urte asko eta asko borrokatu behar izan du gure herriak; eraso handiak jazan: euskal hitzaren eta literaturaren zampaketak, eta Estatuak eta Eliza berak ere jarri dizkion eragozpen sozio-ekonomiko, administral eta politikoak.

Asko baino gehiago!

Eskubide legal hau oraintxe estreinatua baitugu.

Orain hamar urte, 1987an, legeztatu ziguten (praktikan lehen aldiz) bilinguismoa, elebitasunaren formula.

Baina, kasu! Berandutxo; beranduegi ez bada. Zeren eta euskarari aplikatu zaion sendabide idatzi hau ez da berez nahiko, dagoen estuasun larritik ateratzeko.

Ez baita errezeta bat besterik!

Eta geuk tratamendua, osabidea, behar!

Hizkuntzari egindako kalte gaizto eta amaigabeei erremedioak jartzeko ez da nahiko lege idatzi bat; idatzia den lege honi ez bazaizkio beharrezko eta ezinbesteko ere diren eragingarriak eransten; suntsitua dagoen hizkuntzaren mekanismoan bertan ihardunbidea gogoz abiatzen ez bada, euskarak ez du irtenbiderik.

Elebitasun legal hau egiazkoa, erreal, bihurtzen ez bada!

Orain: euskaldunok ba al dugu geure hizkuntza egiazki erabiltzeko eskubiderik

Gaur, Estatu mailan demokraziak egin dituen bideak direla eta Gernikako Estatutuaren lorpenaz gero, zailagoa da euskaldunei maila guzietan bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea ukatzen dieten pertsonak aurkitzea.

Halere, ezagutza teoriko hau ez dator askotan gizakiaren benetako nahimenez indarturik, baizik eta ez da honen ulerkuntza pasibo-elegantea besterik. Eta egiazko laguntza eta interesa falta hau askoz ere nabarmenagoa da erresponsabilitatea handiagoa den puntuan. Estatu mailako alderdi demokratikoetan; hauek baitira herriartean orain arte euskararen aurka Estatuak jauki duen huts politikoaren sendagarri bezala pedagogia ongien egin dezaketenak. Baina, aitzitik, hauek dira hain xuxen, aurkako atxaki bila gehien ahalegintzen direnak.

Demagogiaz.

Bistan da, euskaldunak administralgoko maila guzietan bere hizkuntza erabiliko badu beharrezkoa duela ofizialak edo publikoak diren erakunde guzietan euskaldunak diren enplegatuak jartzea; euskaldunei ezagutzen diguten eskubideak ez du zentzurik leihatilaren bestaldean ez badu euskaldunik aurkitzen; eta ez bakarrik Euskal Herrian euskaldunen diren herrialdeetan bakarrik, baizik eta gure herriko geografi guztian. Honela bakarrik izango du euskalduna den gure herritarrak bere hizkuntzaz komunitatean ofiziala den hizkuntzaz baliatzeko posibilitatea.

Hemen, errealitateak dira nagusi.

Euskal Herrian, lautik batek bakarrik daki euskaraz, eta batzutan maila apalean, eskolarizatu gabekoan, ezagutzen ditugun arrazoi soziolinguistikoen erruz. Aldiz, ia populazio osoak hitzegiten du gazteleraz, behartua (eta, eksklusibaz!) izan den eskolarizazio dela medio, esan dugun bezela; ezarriak izan zaizkigun baldintza hauek direla eta, arrazoi hutsezkoa da, eta zentzuzkoa, eta justiziak eskatzen duena, adierazitako arrazoiengatik gutxien dakitenak, eta geuk dagoeneko onartuak, senti behar direla ahalegin bat egitera deituak, herri honetakoa eta ofiziala den beste hizkuntza ikastera.

Ongi etorriak, lege honen izpiritura eta arrazoiria biltzen ari direnak.

Susmagaitz den pertsonaia politiko batek. Martin Villa jaunak, definitu zuen oso ongi euskalduna ez denak euskalduntzeko duen zentzu morala: Herriko hizkuntza ikasi behar da, esan zuen behin, "ez obligazio bat bezala, betebehar bat bezala baizik" ("No como una obligación, sino como un deber") pertsonala den zerbait, esan nahi zuen, bakoitzak bere buruari eskatu behar dion zerbait.

Eta, egitan, hau da gure herrikide egiteko modurik jatorrena.

Bai maila pertsonalean, eta baita alderdi mailan ere.

Gainontzeko argudioek ez dute arerioarenak direla salatu besterik egiten.